

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5290

*2903/2025 EBAZPENA, azaroaren 17koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Amaia Larrea Aseguinolaza andrea aldi baterako eta lau urte luzagarriz izendatzen baita Anestesiologiako eta Bizkorketako Atal Sanitarioko buru (Bloke Kirurgikoaren koordinazioa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen apirilaren 29ko 473/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi bat argitaratu zen Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Anestesiologiako eta Bizkorketako Atal Sanitarioko buruaren (Bloke Kirurgikoaren koordinazioa) lanpostua hornitzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko maiatzaren 14ko EHAA, 89. zk., eta 2025eko maiatzaren 22ko BOE, 123. zk.).

Epaimahai kalifikatzaileak baloratu egin du aurkeztutako eskabidea, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Amaia Larrea Aseguinolaza andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Anestesiologiako eta Bizkorketako Atal Sanitarioko buru (Bloke Kirurgikoaren koordinazioa) izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Amaia Larrea Aseguinolaza andrea Anestesiologiako eta Bizkorketako Atal Sanitarioko buru (Bloke Kirurgikoaren koordinazioa) izendatzea, aldi baterako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoaren arabera, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2025eko azaroaren 17a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du lanpostua, baldin eta jazotzen ez bada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espedientea baldin badago eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

2025eko abenduaren 11, osteguna

Bosgarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia / San Sebastián, 2025eko azaroaren 17a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

E.B. (1297/2025 Ebazpena, uztailaren 24koa).

Langileen zuzendaria,  
MARÍA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.